

KANTATXOTX

IRRATIAK ERE TXOTX



KANTATXOTX ekitaldiaren bitartez, Gure Irratiak karnikara atera nahi izan du. CAIZKA IROZ

EUSKARAK EMEKI-EMEKI HARTZEN DITU TXOKOAK BAIONAKO KARRIKETAN ETA, KANTATXOTX EKITALDIAREN BIDEZ, BESTE EUSKALGUNE BAT SORTU NAHI DU 'GURE IRRATIA'-K.

KANTATXOTX izeneko ekitaldiaren bidez Gure Irratiak estudioetatik karririkako urratsa egin nahi izan du besten karietara. Xedea bururatzeko Kantaleonen eramalea den Ibaialde elkartearen laguntza ukan du Irratiak.

«Kantatxotxen bidez hiru ohitura bildu nahi ditugu: sagarnoa, euskal kantua eta besta, mendeetan barna euskaldunek naturaltasunez uztartu ditugunak» diote Kantatxotxen antolatzaileek. Gogoeta horretatik abiatuz egunero txotxa eta kantua izanen dira nagusi Arrandegi eta Euskaldunen karririkako bidegurutzean, Gure Irratiaren egoitzaren aitzinean. Atzo adibidez, txistorrak sagarnotan egosi zituzten, Txopinondo sagarnotegia zelarik txotxaren arduradun. Kultur ekimenaren adierazle gisa, antolatzaileek kitarra bat ezarri zuten urdaiazpikoak mozteko jartzan diren zurean.

Trumilka izan ez bada ere, jendeak gogotsu ihardetsi dio euskalgune berria eraikitzeko proposamenari eta Baionan Kantuz taldeko kantariak, Ezin Aseak elkarteak zein Ibaialdekoak tenorean hurbildu ziren hitzordura, antolatzaileen presak hauspotuz. Orenbatean ttanko kitarren doinuek eta

ahotsek bat egin zuten, ondok pasatzen ziren jendeen arreta piztuz. Garaietan kondalariak erabiltzen zuten sistema erabiliz, orri erraldoi batzutan idatzirik zituzten kantuen hitzak, ahanzturaren aitzakian nehor ez zedin egon kantari gabe. Kantu bat bukatzean, ezpain-eztarriak sagarnoztatu, txistorra dastatu eta orria pasatzean berriz prest ziren kantariak ondoko doinuari ekiteko giro gozo, euskaldun eta herrikoan. Hurrupaldiak oren luzea iraun zuten eta ondoren talde tipiagotan joan ziren jendeak bazkaltzera.

BILTOKOIA ZENA. Urte luzetan euskal giroaren eta euskararen erreferentzia izan da Biltxokoa Baionan. 1980 inguruan sortu zuten Ikastolen inguruan ziharduten zenbait ikasle-irakaslek. Gerotik hainbat gora-behera izan zituen eta azken urteotan AEKren batzokia eta ikasgela izan zen. Duela urte bete inguru ordea, jabeak saltzea erabaki zuten eta Tipiko Kideak, Baionako Tipiko elkarteak erosi zuten, AEK Las Vegas egoitzara pasatzea erabaki ondoren.

Besten karietara Tipiko Kideak Baionako jendei ireki nahi izan dituzte elkarte baina horretarako omenalditxo bat eskaini nahi

izan diote euskarari, Baionako Gau Eskolari eta Biltxokoari. «Urte luzetan jendea euskara ikasten aritu da hemen, neguan hotza pasatuz eta ez baldintzarik egokitzen. Jende horien urrats garrantzitsua gure ahalmenaren hein tipian eskertu eta gogorazi nahi izan dugu gaur» diote Tipiko Kideak elkarte arduradunek.

Azken urteotan hainbat elkarte elkarlari ekin diote Baionan eta bestak aitzakia izaten dira hurrupaldiak antolatzeko egoitzetan. Atzoko aukera Biltxokoaren

historia eta euskararen egoera Baionako elkartei ezagutarazteko erabili zuten Tipiko Kideak taldeak. Hurrupaldia sokamuturra bukatu ondoren egin zuten, arratsko zortziak aldera. Batzuek laster alde egin zuten, Manu Chaoren eta Fermin Muguruzaren kontzertua ikustera, berze batzuek aldiz, menturaz sarreterik ez zutelako, nahiago izan zuten lagunarteko giroan gelditu. Kantuaren indarrari so egingez bederen, ez ziren batere enoratu. **ATOR RENTERIA**



EUSKAL GIROA sustatu nahi dute Baionako hainbat elkarte. CAIZKA IROZ